

Online Prestakuntza Unitatearen Irakaskuntza Plana

EmantzipAkzioa: beste mundu posible batzuetarako teoria eta praktika kritikoak



Antolatzailea:



Laguntzailea:



Finantzatzailea:



Hegoa

UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.es

Azaleko Irudia: Lia Kastiyo Espinósa



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Edukiak

1. Aurkezpena	3
2. Gaitasunak	4
3. Ikaskuntza helburuak	4
4. Edukiak	5
5. Lan metodologia	6
6. Lan plangintza	6
7. Ebaluazioa eta egiaztagiria	8
8. Egutegia	11

1. Aurkezpena

“EmantzipAkzioa: beste mundu posible batzuetarako teoria eta praktika kritikoak” ikastaroa Hegoak 2019an eta 2020an gauzatutako “Garapenari buruzko Pentsamendu Kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak” proiektuaren barruan kokatzen da. Ikastaro horren bidez, proiektu horren esparruan sortutako ikaskuntzak zabaltzeko nahi dira, garapenari dagokionez kritikoak diren hiru ikuspegiren inguruan egindako jardueren bidez (ikerketak, eztabaida foroak, eztabaida jardunaldiak, idatzizko argitalpenak eta ikus-entzunezko proiektuak). Hona hemen ikuspegi horiek: postgarapena eta beste aukera praktiko batzuk; bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna; iraunkortasun ekologikoa.

Gizarte eraldaketan interesa duten pertsonentzako prestakuntza tresna gisa eskaintzen da ikastaroa, eta kutsu teoriko-praktiko bikoitza du; izan ere, ikastaroaren helburua da gaur egungo garapen ereduaren teoria eta ikuspegi kritikoak edo alternatiboak ezagutaraztea eta, aldi berean, ikuspegi horiei lotutako esperientzia praktikoak erakustea. Era horretara, teoria eta praktika uztartzen ditu, eta parte-hartzaileen inspirazio izan daitezkeen esperientzia emantzipatzaileak erakusten ditu, gizartea eraldatzeko subjektu bultzatzaile izan daitezkeen.

Abiapuntutzat hartzen du, halaber, politika eta praktika nagusiei buruz kritikoak diren hainbat diskurtso eragin biderkatzailea izan dezaketen praktika berrien bitartez mamitzen ari direla eta, berez, diskurtso berriak sortzeko oinarri direla, aldaketa sakoneko gaur egungo egoeran.

Garapenaren kontzeptuaren bilakaerari buruzko sarrera egin ondoren, ikastaroak garrantzi berezia ematen die goian aipatutako hiru ikuspegiei: postgarapena eta dekolonialitatea; bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna; iraunkortasun ekologikoa. Horietako bakoitzari modulu espezifiko bat eskaintzen zaio. Modulu horretan, esparru teorikoa eta esperientzia praktikoak tartekatzen dira, nola akademiatik hala gizarte mugimenduetatik datozen pertsonen eskutik; era horretara, uztartu egiten dira gogoeta eta ekintza.

Gizarte eraldaketaren esparruan interesa duten UPV/EHUko eta beste unibertsitate batzuetako graduoko eta graduondoko ikasleei zuzenduta dago ikastaroa, bai eta GGKE-etako eta/edo gizarte mugimenduetako kideei ere. 20 partaidetako bi taldetan emango da ikastaroa, euskaraz bata eta gaztelaniaz bestea, Unibertsitate bereko egelaPI plataforman, eta honako elementu hauek baliatuko dira: bideoak, material didaktiko espezifikoak, nahitaezko irakurketak eta hainbat formatutako hausnarketa jarduerak, bai eta material osagarria ere. 8 asteko iraupena izango du guztira ikastaroak (50 ikasketa ordu aurreikusitak - 2 ECTS kreditu). Irakasle taldea Hegoa Institutuari atxikitako irakasle eta ikertzaileek eta gertuko ikertzaileek osatuko dute. Institutuko teknikariek koordinatuko dute irakasle taldea. Ikastaroaren edukiak 4 modulu hauetan banatuko dira:

- 1. modulua:** Garapenari buruzko diskurtsoen azterketa kritikoa
- 2. modulua:** Postgarapena eta dekolonialitatea
- 3. modulua:** Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna
- 4. modulua:** Iraunkortasun ekologikoa

Online ikastaroaren ezaugarrien laburpena

Nori zuzendua: UPV/EHUko graduoko eta graduondoko ikasleak, GGKE-etako eta Gizarte mugimenduetako kideak.

Parte-hartzaile kopurua: 40 lagun (20 euskaraz eta 20 gaztelaniaz).

Online prestakuntzaren iraupena: 8 aste (2021/02/15etik 2021/04/11ra).

Dedikazioa guztira: 50 ordu (2 ECTS kreditu).

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania.

Ikastaroaren koordinatzailea: Yenifer García.

Irakasle taldea:

Yésica Alvarez, *Garapenari buruzko ikasketetan doktorea, Hegoa Institutuan (UPV/EHU).*

Iker Etxano, *Ekonomian doktorea. Ekonomia Aplikatua I Departamentuko irakasle agregatua (UPV/EHU).*

Yenifer García, *Hezkuntzaren Teoria eta Historiako Masterra. Hegoa Institutuko lan taldeko kidea.*

Juan Tellería, *Filosofian doktorea. Filosofia Departamentuko irakaslea (UPV/EHU).*

Leticia Urretabizkaia, *Gizarte-ikertzailea. Hegoa Institutuko doktoregaia (UPV/EHU).*

Unai Villalba, *Garapenari buruzko ikasketetan doktorea. Ekonomia Aplikatua I Departamentuko irakasle agregatua (UPV/EHU).*

2. Gaitasunak

Ikastaroa amaitzean, parte-hartzaileak gai izango dira:

1. Garapenaren kontzeptuaren bilakaera historikoa eta hari buruzko gaur egungo eztabaidaren giltzariak ulertzeko.
2. Gizartearen eraldaketarako proposamen berriak egituratzeko hiru ikuspegi kritikoren oinarriak ulertzeko: postgarapena eta dekolonialitatea; bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna; iraunkortasun ekologikoa.
3. Gainerako parte-hartzaileekin hitz egiteko, gizarte eraldaketaren arloan dituzten esperientzia eta ezagutzetatik abiatuta, eta elkarriketa horiek ikastaroan emandako materialarekin aberasteko.
4. Ikastaroaren eduki nagusien oinarrizko ideiak eta kontzeptuak idatziz azaltzeko.

3. Ikaskuntza helburuak

Ikastaroa diseinatuta dago gainditzen duten pertsonak honako helburu hauek lor ditzaten:

1. Gaur egungo garapen ereduari buruzko oinarrizko zalantzak ikuspegi dekolonialetik, feministatik eta ekologikotik ulertzea.
2. Gizarte eraldaketarako hiru proposamen alternatiboren kontzeptu partikularrak eta elkarguneak eskaintzea: postgarapena eta dekolonialitatea; bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna; iraunkortasun ekologikoa.
3. Ikuspegi horiei lotuta dauden, teoria osatuko duten eta haren ulermena sakontzeko balioko duten gizarte eraldaketako esperientzia praktikoak identifikatzea.

4. Edukiak

Ikastaroaren edukiak 4 modulu tematikotan daude egituratuta, eta atal hauek hartzen dituzte beren baitan:

<p>1. modulua. Garapenari buruzko diskurtsoen azterketa kritikoa</p>	<p>1. gaia: Garapenari buruzko diskurtsoa historian.</p> <p>2. gaia: Milurteko berria: Milurteko Garapen Helburuetatik Garapen Iraunkorreko Helburuetara.</p> <p>3. gaia: Feminismoak eta Garapena</p>
<p>2. modulua. Postgarapena eta dekolonialitatea</p>	<p>Esparru teorikoa:</p> <p>1. gaia: Postgarapena eta trantsizioko diskurtsoak.</p> <p>2. gaia: Kolonialitatea eta iraultza dekoloniala.</p> <p>3. gaia: <i>Sumak Kawsay</i> garapenaren eta kolonialitatearen alternatiba.</p> <p>Esperientzia praktikoak:</p> <p>Peru erdialdeko oihaneko emakumeen egunerokotasunetik abiatutako estrategia ekonomiko alternatiboetan kontzeptuak, praktikak eta zentzuak birpentsatuz.</p> <p>Lakabe, baso lurra.</p>
<p>3. modulua. Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna</p>	<p>Esparru teorikoa:</p> <p>Tokiko feminismoen eta Abya Yalakoen arteko elkarriketa.</p> <p>Bizitzaren iraunkortasuneranzko diskurtso eta praktika artikulatuetan aurrera egiteko gakoak.</p> <p>Intersekzionalitatea, elkargunera iristeko tresna?</p> <p>Esperientzia praktikoak:</p> <p>Iraunkortasuna eta aldaketa: bakearen eta ongi-izatearen ikuspegiak kolonbiar Karibeko emakumeen artean.</p> <p>Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sarea.</p>
<p>4. modulua. Iraunkortasun ekologikoa</p>	<p>Esparru teorikoa:</p> <p>Ekonomia ekologikoa eta iraunkortasuna.</p> <p>(Post)Garapena eta iraunkortasuna.</p> <p>Trantsizio sozioekologikoa eta desazkundera.</p> <p>Esperientzia praktikoak:</p> <p>Meatzaritzaren aurkako borroka Peruko Ayabaca eta Huancabamba komunitateetan.</p> <p>Trantsizio energetiko demokratikoko tokiko esperientziak Euskal Herrian.</p>

5. Lan metodologia

Esan bezala, ikastaro hau gizarte eraldaketan interesa duten pertsonentzako prestakuntza tresna izateko moduan eskaintzen da, eta orientazio teoriko-praktikoa du. Ikastaroa osatzen duten lau moduluetan hainbat jarduera konbinatuko dira.

- Irakasle taldeak osatutako material didaktikoa.
- Irakasle taldeak osatutako bideo tematikoak.
- Bideoetan eta material didaktikoan azaldutako gaiak osatzen dituzten nahitaezko irakurketak.
- Esperientzia praktikoei buruzko bideoak.
- Material osagarriak: artikulua, ikus-entzunezkoak, webguneak...
- Modulu bakoitzean eskuratutako ezagutzen ebaluazio galdetegiak.
- Modulu bakoitzari buruzko gogoeta ariketak.
- Eztabaida foroa.
- Tutoretza pertsonalizatuak.

Ikastaroaren lehen aurkezpen saio bat egingo da, bideo-topaketa gisa (bideo konexioko gelan, egelaPI barne, *Blackboard Collaborate* sistemaren bidez), eta ikastaroaren koordinatzaileak moderatuta. Bertan azalduko da ikastaroaren dinamika, eta parte-hartzaileak aurkeztuko dira.

Ondoren, parte-hartzaileek aukera izango dute ikastaroaren koordinatzailearekin tutoretza birtualak egiteko, bideo konexioko gelan (*Blackboard Collaborate* sistema), eta feedbacka etengabea izango da.

Ikastaroa amaitu baino lehen, parte-hartzaile bakoitzak lan idatzi bat egin beharko du, ikastaroan landutako edukiei buruz gogoeta egiteko. Ikastaroaren koordinatzaileak ebaluatuko du lan hori.

6. Lan plangintza

Lan plangintza ikastaroaren 4 moduluen inguruan finkatzen da.

1. modulua. Garapenari buruzko diskurtsoen azterketa kritikoa			
Ikasketaren helburua	Edukiak	Materialak	Egin beharreko jarduerak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Gaur egungo garapen ereduaren aurrean azterketa kritikoa egitea beharrezkoa dela ulertzea. 2. Garapenari buruzko eztabaidaren hastapen historikoei heltzea eta garapenari buruzko hainbat kontzeptu eta ikuspegi eta interpretazio kontuan hartzea. 3. Garapenari buruzko eztabaidei dekolonialismoak, feminismoak eta ekonomia ekologikoak egiten dizkioten ekarpenak ulertzea. 4. Gaur egungo garapen eredu kode berrien bitartez gaingiditza premiazkoa dela ulertzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. gaia. Garapenari buruzko diskurtsoa historian. 2. gaia. Milurteko berria: Milurteko Garapen Helburuetatik Garapen Iraunkorreko Helburuetara. 3. gaia. Feminismoak eta Garapena. 	<p>1Mko material didaktikoa.</p> <p>1Mri buruzko bideo didaktikoa.</p> <p>1Mri buruzko nahitaezko irakurketak.</p> <p>1Mri buruzko material osagarria.</p>	<p>Ebaluazio galdetegia.</p> <p>Gogoeta lana.</p> <p>Foroan parte hartzea.</p>

2. modulua.- Postgarapena eta dekolonialitatea

Ikasketaren helburua	Edukiak	Materialak	Egin beharreko jarduerak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Postgarapenak garapenaren ideari eta bere diskurtso eta jardunei egiten dion kritika ulertzea. 2. Postgarapenaren kritikekin eta garapenaz bestelako ikuspegiekin (bizitzaren iraunkortasuna eta iraunkortasun ekologikoa, hurrengo moduluetan aztertuko direnak) bat egiteko gune gisa eratzten diren ikerketa dekolonialak eta dekolonialitatearen dimentsioak aintzat hartzea. 3. Sumak Kawsay garapenaren eta kolonialitatearen alternatiba proposamenaren adibide gisa identifikatzea. 4. Dekolonialitatearen eta postgarapenaren ikuspegiari lotutako esperientzia praktikoak erakustea, teoria osatu eta hura ulertzen laguntzeko. 	<p>Esparru teorikoa:</p> <p>1 gaia. Postgarapena eta trantsizioaren diskurtsoak.</p> <p>2 gaia. Kolonialitatea eta iraultza dekoloniala.</p> <p>3 gaia. <i>Sumak Kawsay</i> garapenaren eta kolonialitatearen alternatiba.</p> <p>Esperientzia praktikoak:</p> <p>EP1: Peru erdialdeko oihaneko emakumeen egunerokotasunetik abiatutako estrategia ekonomiko alternatiboetan kontzeptuak, praktikak eta zentzuak birpentsatuz.</p> <p>EP2: Lakabe, baso lurra.</p>	<p>2Mko material didaktikoa.</p> <p>2Mko bideo didaktikoa.</p> <p>2Mri buruzko nahitaezko irakurketak.</p> <p>2Mko esperientziei buruzko bideoak.</p> <p>2Mri buruzko material osagarria.</p>	<p>Ebaluazio galdetegia.</p> <p>Gogoeta lana.</p> <p>Foroan parte hartzea.</p>

3. modulua. Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna

Ikasketaren helburua	Edukiak	Materialak	Egin beharreko jarduerak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Bizitzaren iraunkortasunerako bestelako feminismoak daudela eta garrantzia dutela ulertzea. 2. Ikuspegi feministen ezaugarriak eta ekarpenak aintzat hartzea, baita iraunkortasunarekin eta dekolonialitatearekin dituzten elkarguneak ere. 3. Interseksionalitatearen aukerak eta erronkak ulertzea, hainbat ikuspegi feminista bateratzeko tresna gisa. 4. Teoria osatzeko eta ulermenean sakontzeko balio duten "bestelako" feminismoen esperientzia praktikoak erakustea. 	<p>Esparru teorikoa:</p> <p>1 gaia. Tokiko feminismoen eta Abya Yalakoen arteko elkarrizketa.</p> <p>2 gaia. Bizitzaren iraunkortasuneranzko diskurtso eta praktika artikulatuetan aurrera egiteko gakoak.</p> <p>3 gaia. Interseksionalitatea, elkargunera iristeko tresna?</p> <p>Esperientzia praktikoak:</p> <p>EP1: Iraunkortasuna eta aldaketa: bakearen eta ongi-izatearen ikuspegiak koloniar Karibeko emakumeen artean.</p> <p>EP2: Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sarea.</p>	<p>3Mri buruzko bideo didaktikoa.</p> <p>3Mko material didaktikoa.</p> <p>3Mri buruzko nahitaezko irakurketak.</p> <p>3Mko esperientziei buruzko bideoak.</p> <p>3Mri buruzko material osagarria.</p>	<p>Ebaluazio galdetegia.</p> <p>Gogoeta lana.</p> <p>Foroan parte hartzea.</p>

4. modulua. Iraunkortasun ekologikoa			
Ikasketaren helburua	Edukiak	Materialak	Egin beharreko jarduerak
<p>1. Ekonomia ekologikoaren eta iraunkortasunaren kontzeptuak eta oinarritzko ideiak ikuspegi honetatik ulertzea, eta garapen eredu nagusia zalantzan jartzea.</p> <p>2. Iraunkortasun ekologikoaren eta landutako beste bi ikuspegien (dekolonialitatea, bizitzaren iraunkortasuna) arteko loturak eta topaguneak ezartzea.</p> <p>3. Trantsizio sozioekologikoaren eta desazkundearen oinarritzko osagaiak eta horri buruzko eztabaida soziala aztertzea.</p> <p>4. Iraunkortasunaren eta trantsizio sozioekologikoaren ikuspegiari lotuta dauden eta teoria osatzeko eta hobeto ulertzeko balio duten esperientzia praktikoak azaltzea.</p>	<p>Esparru teorikoa:</p> <p>1 gaia. Ekonomia ekologikoa eta iraunkortasuna.</p> <p>2 gaia. (Post)garapena eta iraunkortasuna.</p> <p>3 gaia. Trantsizio sozioekologikoa eta desazkundera.</p> <p>Esperientzia praktikoak:</p> <p>EP1: Meataritzaren aurkako borroka Peruko Ayabaca eta Huancabamba komunitateetan.</p> <p>EP2: Trantsizio energetiko demokratikoko tokiko esperientziak Euskal Herrian.</p>	<p>4Mri buruzko bideo didaktikoa.</p> <p>4Mko material didaktikoa.</p> <p>4Mri buruzko nahitaezko irakurketak.</p> <p>4Mko esperientziei buruzko bideoak.</p> <p>4Mri buruzko material osagarria.</p>	<p>Ebaluazio galdetegia.</p> <p>Gogoeta lana.</p> <p>Foroan parte hartzea.</p>

7. Ebaluazioa eta egiaztatzea

Moduluetan jasotako jardueren azken helburua honakoa da: parte-hartzaileek proposatutako hiru ikuspegiak gizartea eraldatzeko eskaintzen dituzten aukeretan sakontzea, eta gaitasun analitikoak eta eztabaidarako gaitasunak lantzea, bai beren errealitateari dagokionez, bai maila globalean gertatzen diren egoerei dagokienez. Era berean, jarduera horiek hurbileneko testuinguruetan esku hartzeko tresnak garatzera bideratuta daude.

Ikasturtean, ebaluaziorako 4 jarduera mota egitea aurreikusten da, taula honetan zehazten den moduan:

Ebaluatutako jarduera 1	
Jarduera mota	Modulu bakoitzari dagozkion galdetegiak (1, 2, 3 eta 4).
Deskribapena	Modulu bakoitzaren amaieran, ebaluazio galdetegi bat egongo da, aukera anitzeko hamar galderez osatua; amaitu ondoren norberak zuzenduko du.
Helburua	Parte-hartzaileek garapenaren nozioari dagokionez sortzen diren oinarritzko eztabaidak ulertzea eta landutako hiru ikuspegi alternatiboen ezaugarri bereziak eta elkarguneak ezagutzea: postgarapena eta dekolonialitatea; bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna; iraunkortasun ekologikoa
Ebaluazio irizpideak	Galdetegietan, 0tik 10era bitarteko nota bat emango da, erantzun zuzenen kopuruaren arabera.

Ebaluatutako jarduera 2

Jarduera mota	Modulu bakoitzari buruzko gogoeta jarduera (1, 2, 3 eta 4).
Deskribapena	Modulu bakoitzean, parte-hartzaileek gogoeta jarduera bat egin beharko dute.
Helburua	Parte-hartzaile bakoitzak moduluetako bakoitzean landutako edukiei buruz gogoeta egitea.
Ebaluazio irizpideak	Gogoeta jarduera ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> - Gogoetaren kalitatea. - Espiritu kritikoa. - Barneratutako ezagutzen aplikazioa, dagokion moduluari dagokionez. - Moduluaren edukia aurreko moduluekin lotzeko gaitasuna. - Eztabaidatzeko eta argumentu egokien bitartez nork bere jarrerari eusteko gaitasuna.

Ebaluatutako jarduera 3

Jarduera mota	Ikastaroari dagokion foroan parte hartzea.
Deskribapena	Eztabaida foro bat prestatuko da parte-hartzaileentzat.
Helburua	Parte-hartzaileek gogoeta egitea gizarte eraldaketaren alorrean gaur egun dauden erronken inguruan, eta gainerako parte-hartzaileekin elkarrizketan jardutea beren esperientzietatik eta ikastaroan emandako materialarekin aberastutako ezagutzetatik abiatuta.
Ebaluazio irizpideak	Foroan izandako parte hartzea ebaluatzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeen kalitatea. - Espiritu kritikoa. - Moduluetan jasotako ezagutzen aplikazioa. - Gainerako parte-hartzaileekin eta irakasleekin interakzioan jarduteko gaitasuna. - Diskurtsoak elkarri lotzeko gaitasuna. - Eztabaidatzeko eta nork bere jarrerari ondo arazoituta eusteko gaitasuna.

Ebaluatutako jarduera 4

Jarduera mota	Ikastaro amaierako lana.
Deskribapena	Parte-hartzaileek 2.000 hitzeko artikulua bat osatu beharko dute. Artikulu horretan, interesgarria iruditzen zaien eraldaketa sozialeko esperientzia baten azterketa kritikoa egin beharko dute. Azterketa kritiko horretan, eraldaketa esperientzia ikasturtean zehar landutako hiru ikuspegiekin lotu beharko da.
Helburua	Parte-hartzaileak gai izatea gizarte eraldaketako esperientzia bat modu kritikoan aztertzeko, eta kritika hori ikastaroan proposatutako hiru ikuspegiekin lotzea.
Ebaluazio irizpideak	Ikastaro amaierako lana ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> - Eskatutako hitz kopuruari eustea. - Galderaren erantzunean kontzeptuen argitasuna eta zorrotasuna. - Originaltasuna. - Idazketa eta idatzizko adierazpena. - Espiritu kritikoa (ideiak, paradigmatikak eta diskurtsoak elkarri lotzeko eta aurrez aurre jartzeko gaitasuna eta norberaren argumentuak azaltzeko gaitasuna). - Moduluaren edukiak eta proposatutako gaiak lotzeko gaitasuna.

Jarduera bakoitzari dagokion ebaluazio ehunekoa honako hau izan da:

Ebaluatutako jarduera	1	2	3	4	
Kalifikazio ehunekoa	%10	%20	%30	%40	%100

Ikastaroa gainditu eta dagokion egiaztatzea jasotzeko, lau moduluak gainditu beharko dira. Modulu bakoitza gainditzeko, ebaluazioaren % 75 gainditu beharko da (modulu bakoitza gainditzeko gutxienezko nota: 10etik 7,5). Ikastaroaren azken nota lau moduluen batez besteko nota izango da. Ikastaroa gainditzen duten graduako ikasleek hautazko 2 ECTS kreditu baliozkotzea eskatu ahal izango dute. Graduako ikasketetan kredituak aitortu eta transferitzeari buruzko Araudiaren 11.4 artikulua araberak, zeina argitaratu baitzen Ikasketen Antolamendurako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez (2012ko ekainaren 19ko EHAA, 119. zk.), Unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako kultur eta prestakuntza jardueren bidez (ikastaroak, mintegiak, biltzarrak, etab.) hautazko kredituak amortiza daitezke. Jarduera horietarako, 25 ordu ECTS kreditu baten baliozkoa direla ezartzen da. Horrela, UPV/EHUko ikasleek ikasturte hau gainditu ondoren emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute matrikulatuta dauden zentroko idazkaritzan, horretarako ezarritako epeetan, dagozkion izapideak egin eta dagozkion prezio publikoak ordaindu ondoren, kreditu horiek beren espedienteetan erants daitezke.

8. Egutegia

Jarraian, ikasturtean egin beharreko jarduerak zehazten dira, bai eta horietako bakoitzerako aurreikusten den denbora eta ikastaroaren funtsezko datak ere (hasiera data finkatzean zehaztuko dira).

Jarduera	Zenbat denbora aurreikusten den	Hasiera data	Amaiera data	Egunak
Ikasturte hasierako bilera birtuala	1,0 o	2021/02/15	2021/02/15	1
1. modulua: Garapenari buruzko diskurtsoen azterketa kritikoa	9,0 o	2021/02/15	2021/02/24	10
1Mri buruzko bideoa ikustea	0,3 o			
Material didaktikoa irakurtzea	2,5 o			
Nahitaezko irakurketak	3,0 o			
Galdetegia betetzea	0,2 o			
Gogoeta lana egitea	2,0 o			
Foroan parte hartzea	1,0 o			
2. modulua: Postgarapena eta dekolonialitatea	10,0 o	2021/02/25	2021/03/06	10
2Mri buruzko bideoak ikustea	1,0 o			
Material didaktikoa irakurtzea	2,5 o			
Nahitaezko irakurketak	3,0 o			
Galdetegia betetzea	0,2 o			
Gogoeta lana egitea	2,0 o			
Foroan parte hartzea	1,3 o			
3. modulua: Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna	10,0 o	2021/03/08	2021/03/17	10
3Mri buruzko bideoak ikustea	1,0 o			
Material didaktikoa irakurtzea	2,5 o			
Nahitaezko irakurketak	3,0 o			
Galdetegia betetzea	0,2 o			
Gogoeta lana egitea	2,0 o			
Foroan parte hartzea	1,3 o			
4. modulua: Iraunkortasun ekologikoa	10,0 o	2021/03/18	2021/03/27	10
4Mri buruzko bideoak ikustea	1,0 o			
Material didaktikoa irakurtzea	2,5 o			
Nahitaezko irakurketak	3,0 o			
Galdetegia betetzea	0,2 o			
Gogoeta lana egitea	2,0 o			
Foroan parte hartzea	1,3 o			
Ikastaro amaierako lana	10,0 o	2021/03/28	2021/04/11	15
Guztira	50,0 o			56 egun